

Kulturaren Plan Estrategiko berri bat Nafarroarako **2024-2028**

Ikus-entzunezko industriaren
/Digitalaren mahaian parte
hartzeko dutenentzako
lan-koaderno

Aurkibidea

1.- Aurkezpena	3
2.- Nola egingo dugu lan saioan?	4
Lehen Zatia	
3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk	5
3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik Nafarroako kulturaren eremuari dagokionez?	5
3.2.- Nafarroako ikus-entzunezko industriaren/digitalaren egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia	8
3.3.- Lehenengo gogoetak eta erronkak ikus-entzunezko industriaren/digitalaren eremuan	14
Bigarren zatia	
4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen	16

1.- Aurkezpena

Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitaterako Kulturaren Plan Estrategiko bat (NKPE) egitea sustatu, koordinatu eta kudeatzen du datozen urteetarako (2024-2028).

Zein

helburu lortu nahi da?

Ekintza Plan bat eraikitzea da helburua, aurreko Planaren (2017-2023) ebaluazioan, egungo egoeraren diagnostikoan eta sektore profesionalaren eta herritarren ekarpenetan oinarrituta, Nafarroako kulturaren arloko jarduerak orientatzeko eta balioesteko tresna gisa balioko duena.

Nola

eratzten da Plan hau?

4 lan-fase zehaztu dira:

I. eta II. faseetan, 2017-2023ko NKPE-aren ebaluazioa eta Nafarroako kultura- eta sormen-sektorearen egungo egoeraren diagnostikoa garatu dira.

III. fasean, herritarrekin eta kultura- eta sormen-eragileekin partaidetza-prozesuari heltzen zaio, zenbait lan-mahai antolatuz.

Azken fasean 2024-2028 NKPEa egingo da.

Lurralde mahaien

helburua

Parte-hartze prozesua 2023ko azaroaren 6an hasiko da 15 saio sektorial, lurraldekoak eta zeharkakoak eginez hainbat herritan. Mahai sektorialak Iruñean egingo dira, eta gai hauek jorratuko dituzte: museoak; ondarea; arte plastikoak eta ikusizkoak; ikus-entzunezkoen industria/industria digitala; artxiboak eta dokumentu-ondarea; liburuak eta liburutegiak; arte eszenikoak eta musika.

Kulturaren eta sormenaren arloko profesionalen/eragileen eta horien azpistema guztien beharrak/zailtasunak/ahuleziak identifikatzea da helburua, eta 2024-2028 NKPE-aren estrategiak eta jarduera-ildoak eraikitzeko balioko dieten ekintza-proposamenak ezartzea. Mahai hauek interesa duen edozein kultur eragileri irekiak dira, eta izena eman ahal izango dute beren hausnarketak eta proposamenak partipianavarra webgunearen bitartez adierazteko.

2.- Nola egingo dugu lan saioan?

Nafarroako ikus-entzunezko industriaren/digitalaren beharrizan eta lehentasunei buruz modu partekatuan hausnartzeko eta behar horiei erantzuteko gure ideiak emateko aukera izango dugu. Saioaren gidoia honako hau izango da:

Edukia	Arduraduna
Lehen zatia	
Ongi etorria NKPE saioaren helburuak	Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia
Testuinguru orokor laburra: aurreko planaren ebaluazioaren eta Nafarroako ikus-entzunezkoen industriaren/digitalaren egungo egoeraren diagnostikoaren emaitzak; hasierako gogoetak eta erronkak	Ikerpartners
Bigarren zatia	
<p>1. Lan dinamika: Kulturaren balio-katea kontuan hartuta, zer behar, zailtasun eta ahulezia aurkitzen ditugu Nafarroako ikus-entzunezkoen industriaren/digitalaren eremuan? Dimentsio bakoitzean zailtasun eta ahulezia horiek identifikatzea eta lehenestea da helburua. Metodologia: Banakako gogoeta laburra + Taldekako gogoeta</p>	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
<p>2. Lan dinamika: NKPE 2024-2028 berrirako IDEIEN MAPA bat eraiki Nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei? Nafarroan ikus-entzunezkoen industriaren/digitalaren eremua garatzeko ideiak eta ekarpenak Metodologia: Taldekako lana + Taldekako gogoeta</p>	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
Saioaren amaiera	Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

LEHENENGO ZATIA

3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk

3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik?

- 1.** Kulturara bideratutako aurrekontua handitu egin da:
2017 – 2023 bitartean %46 handitu da, eta azken urte honetan lortu du gehienera iristea (56,4 milioi euroko aurrekontua) Aurrekontuaren egikaritze-maila %90etik gorakoa izan da ekitaldi guztietan, COVID-19aren krisiak eragindako eragina gorabehera.
- 2.** Biztanleko batez besteko gastua igo egin da.
20 euro inguru hazi da azken urteotan, 2017an 55,8 eurokoa izatetik 2022an 75,6 eurokoa izatera igaro baita.
- 3.** Nafarroa nagusi kulturean.
Nafarroa da kulturako gastuaren buru biztanleko, gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta. Nafarroak kulturean gastu handiagoa du BPGrekiko, eta erkidegoko gastu osoarekin alderatuta kulturean gastu handiena duen bigarren erkidegoa da.

4. Udalek kulturaren egindako gastua.

Nafarroako Udalen multzoak 50 milioi euro baino gehiago gastatzen ditu urtean kulturari, 2018an 56,4 milioiko maximora iritsiz, eta 2020an beherakada handia izan du, pandemiak eragindako murrizketen ondorioz ziurrenik. Nafarroako administrazio publikoen kulturako gastu kontsolidatua (Sailak udalei egiten dizkien transferentziak kenduta) 63,4 milioi euro ingurukoa zen 2017an, eta joera positiboa izan zuen hurrengo bi urteetan, 2019an 74,1 milioi eurora iritsi arte. 2020an, pandemiaren urtean joera hori hautsi egin da, 59,9 milioi euroraino jaitsi baita.

5. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2018-2023).

442 deialdi egin dira. Dirulaguntzen kopuruak eta haien aurrekontuak gora egin dute pixkanaka 2018 eta 2023 artean. Plan honek 2023rako dirulaguntza kopuru handiena jasotzen du, 2022koa baino aurrekontu apur bat txikiagoarekin.

6. Next Generation Funtzak.

Aukera bikaina dira Nafarroan kulturaren arloko proiektu eta jardueretarako finantzaketa gehigarria izateko, 7,5 milioi euroko aurrekontuarekin.

7. Udalek kulturaren egindako gastua.

Ikus daitekeenez, aurreko planean (2017-2023), garapen-maila osoa lortu duten ardatzak lurralde-kohesioarekin eta -dinamikarekin, kultura-eskaintzaren ikusgarritasunarekin eta aniztasunarekin, kultura-sektoreekin eta balio-katearekin eta KSI-ekin lotzen dira.

(Nafarroako Kulturaren Atari Digitala; gizartean ikusgarritasun handiagoa izateko kultura-marka; profesionalak eta enpresak bultzatzeko programak; eskaintza eta irismena gune kulturaletatik urrun dauden herrietara deszentralizatzea (Artea eta Kultura eta tokiko Udal Platea, etab.); liburutegi-sarerako finantzaketa indartzea; Nafarroako Gobernuaren monumentuak kontserbatzeko, zaharberitzeko eta egokitzeko inbertsioak areagotzea; programazio artistikorako finantzaketa indartzea eta Kultur Ekintzaren programak garatzea; Nafarroako museoen eta museo-bildumen funtzionamendu- eta jarduera-gastuen finantzaketa indartzea; Nafarroako artxibo-sistemaren aurrerapenak, administrazio elektronikoaren testuinguru berrira egokitzeko; sektorearen aukera profesionalak areagotzera bideratutako ekintzak areagotzea; Kultura Eskubideen Legea...).

8. Garapen-maila aurreratua

duten ardatzak honako hauei lotuta daude: informazioa, ezagutza, berrikuntza eta sormena, enpleguaren kalitatea, sentsibilizazioa eta parte-hartzea, finantzaketa, kulturaren zeharkakotasuna eta beste sektore batzuekiko hibridazioa, ekipamendu eta baliabideetarako irisgarritasuna hobetzea.

(Nafarroako Kulturaren Behatokia sortu eta garatzea, Nafarroako KSI-ren kultura- eta arte-proposamenen erregistroa eraikitzea; publikoak garatzeko jarduerak eta programak sustatzea; KZN-VPE-ak zeharkako plan eta batzordeetan parte hartzea (batzordeak, sail barruko eta sailen arteko bilerak, etab.); Nafarroako hainbat herritan kultura-espazioak eraikitze/berregokitzeko proiektuak/azterlanak; Kultur Ekintzako zerbitzuaren berezko programak, kaleko programazio profesionala eta amateurra indartzeko).

3.2.- Nafarroako ikus-entzunezko industriaren/digitalaren egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia

Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezkoen sektoreko eta sektore digitaleko enpresen kopuruak % 35 egin du gora 2017 eta 2022 artean.

Nafarroako Ikus-entzunezko Industriako enpresak, soldatapeko pertsonen tartearen arabera. 2017

Soldatapeko pertsonen tartearak	Ikus-entzunezkoak	Fonografikoa	Bideojokoak/Digitala	Guztira
Soldatapekorik gabe	32	17	50	99
1-2 soldatapeko	16	4	12	32
3-5 soldatapeko	4	0	6	10
6-9 soldatapeko	5	0	7	12
10-19 soldatapeko	2	0	0	2
20-49 soldatapeko	3	0	1	4
50-99 soldatapeko	0	0	0	0
100-249 soldatapeko	0	0	0	0
Guztira	62	21	76	159

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Nafarroako Enpresen Direktorioa (DENA).

Nafarroako Ikus-entzunezko Industriako enpresak, soldatapeko pertsonen tartearen arabera. 2022

Soldatapeko pertsonen tartearak	Ikus-entzunezkoak	Fonografikoa	Bideojokoak/Digitala	Guztira
Soldatapekorik gabe	59	23	51	133
1-2 soldatapeko	28	4	11	43
3-5 soldatapeko	9	0	4	13
6-9 soldatapeko	3	0	6	9
10-19 soldatapeko	6	0	3	9
20-49 soldatapeko	1	0	3	4
50-99 soldatapeko	1	0	1	2
100-249 soldatapeko	0	0	1	1
Guztira	107	27	80	214

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Nafarroako Enpresen Direktorioa (DENA).

10 enplegutik 4 langile autonomoen araubide berezian daude, eta, batez beste, enpleguaren % 24 emakumeek betetzen dute.

Ikus-entzunezkoen industriako erregimen orokorreko afiliazioen eta autonomoen kopurua, Nafarroako Gizarte Segurantzaren arabera. 2022

Eremua	Autonomoak	Erregimen orokorra	Guztira	Emakumeen %
Ikus-entzunezko industria	125	309	434	% 45,4
Industria fonografikoa	48	1	49	% 6,1
Bideojokoak/digitala	187	309	496	% 21,6
GUZTIRA	360	619	979	

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, GSDOK lagatako Gizarte Segurantzako Afiliazioari buruzko datuetan oinarrituta.

2022an, ikus-entzunezko 62 proiektu ekoitzi dira Nafarroan, eta garatzen ari diren Nafarroako ekoizleen 11 animazio-film zenbatu dira.

Nafarroan filmatutako ikus-entzunezko proiektuak. 2022

Ikus-entzunezko proiektuak	Proiektu kop.
Pelikulak	30
Film luzeak	9
. Fikzioa	6
. Dokumentala	3
Film laburrak	21
. Fikzioa	19
. Dokumentala	2
Telesailak	4
TB programak	9
Bideoklipak	9
Iragarkiak	5
Bideo instituzionala	3
Argazki-saioa	2
Guztira	62

Iturria: Navarra Film Industry

Garapen-bidean dauden animaziozko filmak eta Nafarroako ekoizleek ekoiztitakoak. 2022

Animaziozko filmak	Film kop.
Film luzeak	7
Film laburrak	4
Guztira	11

Iturria: Navarra Film Industry

Zinema-emanaldietan, oraindik ez dira berreskuratu covid-aren aurreko garaiko ikusleen eta diru-bilketaren kopuruak, nahiz eta emandako filmen kopuruak gora egin duen.

Zinemako ikusleen bilakaera Nafarroan. 2017-2022

Ikusleak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ikusleak guztira (milioiak)	1,6	1,6	1,6	0,5	0,7	0,9
Ikusleak areto bakoitzean	25.559	25.050	25.968	8.481	10.877	15.242
Batez besteko bertaratzea biztanleko	2,4	2,4	2,4	0,8	1,0	1,4

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua. Zinematografiaren Estatistika: Ekoizpena, Erakusketa, Banaketa eta Sustapena. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroan emandako film kopuruaren bilakaera. 2017-2022

Emandako filmak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Emandako film kop.	433	479	465	308	448	477

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua. Zinematografiaren Estatistika: Ekoizpena, Erakusketa, Banaketa eta Sustapena. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Zinemako diru-bilketaren eta batez besteko gastuaren bilakaera Nafarroan. 2017-2022

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Bilketa (milioi euro)	8,7	8,5	8,5	2,8	3,6	5,2
Ikusle bakoitzeko batez besteko gastua (€)	5,6	5,5	5,4	5,4	5,4	5,6
Biztanleko batez besteko gastua (€)	13,6	13,1	13,1	4,3	5,5	7,9

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua. Zinematografiaren Estatistika: Ekoizpena, Erakusketa, Banaketa eta Sustapena. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Interes falta eta denbora falta, zinemara ez joateko arrazoi nagusiak.

Aztertutako aldiaren (2021-2022) zinemara ez joateko arrazoi nagusia Covid-19 bada ere, interes falta (% 16,5) eta denbora falta (% 15,7) dira arrazoi ohikoenak. Aitzitik, plataforma digitaletako harpidetzak (doakoak eta ordainpekoak) gehitu egin dira 2018 eta 2022 artean.

Zinemara ez joateko edo gehiagotan ez joateko arrazoi nagusiak (%). 2021-2022

Arrazoiak	%
Garestia	8,5
Zaila sarrerak lortzea	0,0
Eskaintza gutxi	11,3
Informazio gutxi	0,0
Telebistan, bideoan, ordenagailuan eta Interneten ikustea nahiago	2,8
Zaila etxetik irtetea	3,5
Zaila ulertzea	0,4
Denborarik ez	15,7
Interesik ez	16,5
Ez du norekin joan	1,0
Eremurako irisgarritasun fisikoko arazoak	0,3
COVIDari lotutako arrazoiak	39,0

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Plataforma digitaletara harpidetu diren pertsonen ehunekoaren bilakaera Nafarroan. 2018-2022

	2018-2019	2021-2022
Filmen, telesailen eta bestelakoen plataforma digitalen harpidetza (doan)	% 3,1	% 3,8
Filmen, telesailen eta bestelakoen plataforma digitalen harpidetza (ordainpekoa)	% 32,7	% 54,3

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Nafarroan musikaren kontsumoa Internetera konektatutako ekipoetan, telefono mugikorrean eta irratan egiten da batez ere. Bestalde, Nafarroako biztanleen % 30 musika-plataforma digitaletan harpidetuta daude. Azkenik, musika ez erosteko arrazoi nagusiak honako hauek dira: entzun nahi duen musika Internet bidez entzuten du (% 53), irrati edo telebista bidez entzuten du (% 29) edo plataforma digitaletarako harpidetzaren bidez lortzen du (% 20).

Erabiltzen duten ekipoen arabera musika entzuten duten pertsonak Nafarroan. 2021-2022

Ekipoak	%
Irratia	58,3
Mugikorra	68,0
Ordenagailua	18,5
Tableta	7,0
Musika-ekipo eramangarriak	7,9
Telebista	15,8
Beste ekipo batzuk	16,2
Internetera konektatutako ekipoetan	74,0

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Pertsonak Nafarroan, azken hiruhilekoan musika-plataforma digitaletan egindako harpidetzaren arabera 2021-2022

Plataforma digitaletan harpidetutako pertsonak	Guztira	Doako harpidetzak	Ordainketa harpidetzak
Harpidetutako pertsonak (%)	30,4	19,2	12,4

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

3.3.- Ikus-entzunezko industriaren/digitalaren arloko lehen gogoetak eta erronkak

Urte honen hasieran, Nafarroako Foru Gobernuko Kultura eta Kirol Departamentuko Ikus-entzunezko Proiektu Estrategiko eta Digitalen Atalak Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreko enpresa eta profesionalei buruzko azterlan bat sustatu zuen, sektorearen diagnostiko bat jasotzen duena eta etorkizuneko erronka batzuk ere planteatzen dituena.

Azterlan hau erreferentziatzat hartuta, jarraian identifikatutako gogoeta-elementuetako batzuk planteatzen dira:

- 1.** Ikus-entzunezko sektoreko enpresen eta profesionalen arteko topaguneak sustatzeko beharra, eta elkarrekiko ezagutzan sakontzeko eta garrantzi handiagoko proiektuei elkarrekin ekitea ahalbidetuko luketen tresnak sortzeko beharra
- 2.** Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreko enpresek eta profesionalak nazioko eta nazioarteko beste merkatu batzuetan duten presentzia eta ikusgarritasuna indartzeko beharra
- 3.** Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen profesionalizazioa eta lehiakortasuna indartzeko beharra
- 4.** Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorearen bilakaera eta dinamika ezagutzeko beharra, eremu horretako politika publikoak hobetzeko tresna gisa

BIGARREN ZATIA

4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen

Saioaren zati honetan, hausnarketa partekatua egingo dugu bi ikuspuntutik:

1º. Nafarroan ikus-entzunezko industriaren/digitalaren arloan dauden beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatuko ditugu

- Balio-katea oinarritzat hartuta, ikus-entzunezko industriarekin/digitalarekin lotutako hausnarketa-elementu batzuk planteatzen ditugu
- Hautatu Nafarroan lan egitea LEHENTASUNEZKOTZAT dituzun 4 eremu
- Adierazi ZERGATIK uste duzun zailtasun/behar handiagoa dutela

Horretarako Fitxa 1 jartzen dizugu eskura
(banakako lana + taldekako gogoeta)

2º. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marrartzuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko.

- Lehen identifikatu den dimentsio bakoitzerako, asmoa da taldean ondorengo galderari erantzutea: nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei?
- Zer proposatzen dugu Nafarroan ikus-entzunezko industriaren/digitalaren egoera hobetzeko?

Horretarako Fitxa 2 jartzen dizugu eskura
(taldekako lana + taldekako gogoeta)

1. Dinamika. **GOGOETA-ELEMENTUAK**, balio-katetik eta beste gogoeta batzuetatik abiatuta proposatzen ditugunak, Nafarroako ikus-entzunezko industriaren/digitalaren eremuko beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatzeko. Hasieran planteatu ez diren beste gai batzuk identifikatzeko proposamen irekia (*1. fitxarekin batera joango da bakarkako lanerako*).

Sektorearen
profesionalizazioa

Ikerkuntza, ezagutza

Kultura-ohitura eta
-kontsumoa

Balioan jartzea eta
zabalkundea

Eraldaketa
digitala,
berrikuntza

Baliabideak eta
laguntzak
(lehiakortasuna)

Profesionalen
prestakuntza

Sareak, aliantzak,
topaguneak sortzea

Kanpoko
proiektzioa

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

2. Dinamika. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko

Lehenetsitako eremua

Nola hobetu dezakegu egoera? Garatzeko/indartzeko ideiak

Erantzukizunak: garapenerako eragile nagusiak (administrazio publikoa, kultur eragileak, herritarrak, hirugarren sektorea...)

Eremu 1

Eremu 2

Eremu 3

Eremu 4

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroan datozen urteetako
Kultura Plan Estrategiko bat eraikitzeko erronkan
aktiboki parte hartu duten pertsona
eta erakunde guztiei